

**BIZIAN GORA, GORA BIZIAN  
HAUXE DA GURE ESKOLA,  
GURE ARTEAN SARTZEN DANARI  
JAUNAK LAGUNDU DEIOLA.**

*("Andre Madalen")*

**1**

Ikusi zenbat ikasi dodan  
nik hemengo liburuaz:  
Konformatzea neure bizitzaz  
eta neure inguruaz.  
Harrezkero ni bakean nago  
neure barru ta buruaz,  
hau ezin da truk egin ezegaz,  
bakarrik goiko zeruaz.

**2**

Eleizak eta bardin herriak  
dauke euren historia,  
biak zertxobait hobetu nahian  
sentitzen dot adoria.  
Atzo zan baltza, gaur da zuria,  
Nok jakin? Bihar oria...  
Eutsi deiogun guk geuriari  
ta ez galdu umoria.

**3**

Jaungoikoagaz adiskidetzen  
izan dot, jaunak, nahiko lan!  
Ikasi barik, Berak sartu dau  
nigan halan edo holan.  
Jainkoa lagun, guk alkarregaz  
egiten dogu auzolan,  
Jesus Bera da maisu bakarra  
Bizian Gora eskolan.

**4**

Jesus Bera da gure Maisua  
ta bizitza ikasbide,  
Bizian Goran eginak dodaz  
mila bat lagun ta senide.  
Espirituak jarri nau martxan,  
Eleizak hartu lankide;  
zatoz geugaz ta jakingo dozu  
zeuk hau zer dan, adiskide.